

# Potato

# hamalau urtez



Hamalau urte dira Potato taldea sortu zela. Orduetik hona ibilbide luzea egin du Euskal Herriko reggae musikaren ordezkari horrek, eta ibilbide osoa islatzeko asmotan kaleratu dute Elena Lopezek eta Pedro Espinosak talde arabarrari buruzko liburua: 'Potato Reggae Band: la utopia de una Euskadi tropical'. Bi egileak Potatoko kideak izandakoak dira, eta Aianai argitaletxearekin kaleratu duten hirugarren lana da hau.

Elena Lopezen hitzak dira ondoak, eta idatzi berri duten liburuz mintzo da: «Potato ez da hil, ez dago hilda, eta kaleratu dugun liburu hau ez da omenaldi bat. Liburua egin beharrekoa zen, eta natural irten da», dio ezer azaltzen hasi aurretik. Berak eta Pedro Espinosak Potato Arabako taldeari buruzko liburua kaleratu berri dute: *Potato Reggae Band: la utopia de una Euskadi tropical*. Bi egileek batera kaleratu duten hirugarren liburua da, Aianai argitaletxearen eskutik. *Hertzainak: la confesión radical* eta *Del txistu a la telecaster* liburuak idatzi dituzte aurretik. Orain Potatoren biografia osoa kaleratu dute. Biografia berezi samarra. Azken finean, Elena eta Pedro Potato taldeko kideak izandakoak dira, eta

garai batean behizat barrutik ezagutu zuten taldea.

Historia luzea du Potatok; Euskal Herriko reggae mugimenduari estu lotutako historia. Azken 14 urteotan Euskal Herriko musikaren isla ere bada. Urte asko izaki, 300 orrialde baino gehiago behar izan dituzte bi kazetariak Potatoren nondik norakoak liburuan jasotzeko. Partaideak ere asko izan ditu Potato taldeak, eta kide guztiekin mintzatu dira Elena Lopez eta Pedro Espinosa. Izenak ematen hasiz gero 35era arte ez litzateke geldituko Elena. Liburua egiteko orduan lankide izan duen Pedro Espinosatik hasi eta egun oraindik taldean dagoen Pako Lopez Moya Pecaoraino Potatoren inguruan aritu izan direnen izenak eman ditzake Elenak.

## PASARTEZ PASARTE

Zazpigarren diskoa kaleratu zuen Potatok iaz, 1997. urtean: *Pecado original*. Taldekideek orduan Potatoren kantu guztietako hitzak bilduko zituen liburua kaleratzea nahi izan zuten. «Nik orduan hitz guztiak biltzeaz gain, biltzeko bazegoela besterik ere pentsatu nuen, eta liburu osatuago bat egitea proposatu nien taldekideei. Hala, taldean pisu gehien izan zuten lagunekin hasi nintzen mintzatzen», azaldu du Elenak.

Liburuak hitz guztiak jaso eta, kronologikoki, taldearen historia kontatzen du, eta taldeak kaleratutako diskoak biografiaren ardatz garrantzitsua dira lan honetan. Bestalde, idazkera estilo bikoitza du liburuak; izan ere, narrazioak eta elkarrizketak jasotzen baititu bere baitan. «Potaton izandako kide ororekin hitz egin dugu; 35 izan dira guztira, eta, beharbada, hori izan da Potatoren edertasuna eta miseria era berean. Zeren kide berberak iraun balute taldean, seguru asko ez zuen hainbeste iraungo. Bizitzaren gorabeherak direla-eta kide batzuek utzi egin behar izan dute eta beste batzuk sartu dira. Garai ezberdinak izan dira. Disko eta lan ezberdinak izan ziren. Jendea irabazten eta galtzen joan da taldea», dio Elenak. Pedro Espinosa eta Juan Borico ginearra dira taldearen sortzaileak, eta liburuaren egilearen esanetan, «Potato taldea baino lehen Potato ideia sortu zuten. Pedro Espinosak eta Juan Borico ginearra

sortutako ideia da Potato». Izenak ematen hasiz gero ez luke amaituko Elenak: Jabier Oioki, Oki Man teklista, Timoteo Zaeta baterria, Julen Trebiana...

Potatoren sorrerako kontuekin ekin diote bi kazetariak, eta orduko garaien berri azaltzen dute liburuaren inguruan azalpenak emateko orduan. «1984. urtean, rock erradikala zeritzona sortu zen garai berean sortu zen Potato ere. Hertzainak jaio eta *Euskadi Tropikala* jaio zen garai berean. Orduan sortu zen Potato. *Euskadi Tropikala* kontzeptuak adierazten duen guztiarekin sortu

zen, gainera. Euskal Herriari lotuta zetorren zentzu tragiko eta serio hartatik urrundu eta egoeren desdramatizaziora jo genuen», azaldu du Elenak.

Liburuaren egituraz mintzodan bitartean azalpenak ematen ditu Elenak. Pasarteak ditu gogotan. «Bigarren kapitulua *Landazuritik Jamaikara* deitzen da. Landazuri hemengo Gasteizko kiroldegi bat da. Bertan eman zuen Potatok bere lehen kontzertua. Gero, 1985. urtean Jamaikara joan ziren taldekideak reggae maratoni batera. Bidaian izandako arazoak ere jasotzen ditugu. Hegazkina Kuban, Habanan, geldituzen, eta bertan beste bat hartu behar zuten taldekideek. Baina astean behin igarotzen zen, eta kontzertura heltzeko arazoak izan zituzten», kontatzen du.

Hirugarren diskoa etorri zen gero. Gero laugarrena, bosgarrena, seigarrena eta iaz zazpigarren lana, *Pecado original*, kaleratu zuten. Ibilbide osoa jasotzen du liburuak. Baita taldearen izenaren jatorria ere. «Potato hitza ingelesa da, eta *patata* esan nahi du. Arabako jatorriari lotuta dago patata, baina era berean ematen zaion kutsu ezkor hori kendu nahi izan zaio. Arabari oso lotua dago izena, baina aldi berean oso kosmopolita ere bada», adierazi du Elenak.

Kontuak kontu, hona hemen Potato taldearen biografia osoa.

ane sarasketa

**Kafe ANTZOKIA**

**Noraezean**  
Euskadi gaztea 8. inaketa lehia ketako irabazlea

**+ DEF CON DOS**

98/12/29 ASTEARTEA 21:00etan  
Sarrera: 800 pta.

**KAFE ANTZOKIA San Vicente 2 48001 Bilbo**